

Ogasun batzordeak 2018ko martxoaren 21ean, besteak beste, ondoren aipatzen denari buruz kontu eman duela adierazi nahi dizut:

2.-2018/472 (2018/1 kreditu gaikuntza) dekretuaren jakinarazpena.

Lehen espedientea kreditu gaikuntza modalitatean egin da eta jasotzen duten partidak hauek dira:

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK	29.369,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		29.369,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
6	INBERTSIO ERREALAK BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK	29.369,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		29.369,00

Batzordekideak jakinaren gainean geratu dira eta proposatzen da Osoko Bilkurari berri ematea.

Tolosan, 2018ko martxoaren 21ean

LEHENDAKARIA





TOLOSAKO UDALA

Ogasun batzordeak 2018ko martxoaren 21ean, besteak beste, ondoren aipatzen dena diktaminatu zuela adierazi nahi dizut:

3.-Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2018ko ekitaldian jaso dira, baina 2017ko ekitaldiko faktura data dute.

HARRERA DATA	FTRA. DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2018-02-01	2017-10-06	0500.211.01.231.00	TINTATEGIADIZDIRA	1705434	Colada sin plancha	50,60 €
2018-02-01	2017-10-14	0500.211.01.231.00	TINTATEGIADIZDIRA	1705562	Colada sin plancha	25,30 €
2018-02-23	2017-07-12	0500.480.01.231.00	EDURNE BENGOTXEA FARMASIA	B065425/2017	Gizarte Zerbitzuko botikak (1085 balea)	4,24 €
2018-02-23	2017-11-24	0500.480.01.231.00	EDURNE BENGOTXEA FARMASIA	B084932/2017	Gizarte Zerbitzuko botikak (1143 balea)	13,08 €

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeek aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2017ko abenduaren 31an aipatutako obligazioak onartu gabe zeuden eta 2018ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Hori guztia ikusirik, batzordeak aho batez diktaminatu du itxitako ekitaldiko faktura hau Osoko Bilkurara bidaltzea, onar dezan.

Tolosa, 2018ko martxoaren 21a

LEHENDAKARIA



TOLOSAKO UDALA

Ogasun batzordeak 2018ko martxoaren 21ean, besteak beste, ondoren aipatzen dena diktaminatu zuela adierazi nahi dizut:

4.-2018ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamenaren onarpena.

2018ko otsailaren 1ean ospatutako Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboan Al-Quds-Jerusalen, Palestinaren Aldeko Elkarte diru-laguntza izenduna izatea diktaminatu zen, "Not to Forget Women Society" proiektua aurrera eramateko.

Hortaz, Gizarte Zerbitzuetako Nazioarteko laguntzen 2017ko udal aurrekontuetako 0500.491.01.231.00 partidako ataletik 9.000 euro ateratzea diktaminatu da eta nominatibo bezala izendatzea Al-Quds-Jerusalen, Palestinaren Aldeko Elkartearentzat, "Not to Forget Women Society" proiektua aurrera eramateko.

Beraz, honela geratuko da:

0500.491.01.231.00		ELKARTEAK	Nazioarteko dirulaguntzak	72.750,00	Konpetentzi lehiakorra
0500.491.01.231.00	AS/G/19191/2015	AL-QUDS-JERUSALEN, PALESTINAREN ALDEKO ELKARTEA		9.000,00	Izenduna

Hau guztia ikusirik, bozkatu egin da, bertaratutako guztien aldeko botoekin.

- Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
- Nuria Carbonel (EAJ) Iñigo Alonsoren izenean: Aldeko botoa
- Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa
- Iñaki Irazabalbetia (EH Bildu): Aldeko botoa

Beraz, ondorengo diktaminatu da eta proposatzen du:

Lehenen.- Osoko Bilkurak 2018ko dirulaguntzaren eranskina aldatzea goran aipatutako aldaketekin.

Bigarrenen.- 2018ko dirulaguntzaren eranskinaren aldaketa hamabost laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jartzea, interesatuek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko litzateke.

LEHENDAKARIA

Tolosa, 2018ko martxoaren 21a